

Zanpakaminoa

TXILLARDEGI



ZANPAKAMI-NOAK berdinu egiten ditu, koxkak kendu, harri-koxkorak lurperatu.

«¿Lah ikahotah? ¿Pero eso qué eh? Ni en Murcia, ni en Zamora, ni en Segovia hay ikahotah. Ergo: públicah, o privadah.»

Badakizue: «sin perjuicio de la unidad constitucional: Escuela norteña, respetuosa del sílbole y del pacharán, sí. Escuela de aquí, sí. Pero ikastola, no.»

Bide beretik: «ETB2, con Moreno y sevillanas, sí. ETB1, sí; pero solo para dibujos animados y deporte. Diez minutos al día ya valen para todo el resto.»

«AEK, UEU, EKB, no existen en Murcia, ni en Málaga, ni en Soría. Malo.»

«EHU, malo. UPV, Universidad de aquí, bueno». Gainera beti daude LOAPA, LRU, LOGSE, eta abar, zanpakaminoaren bidez desberdintasunak lautzeko. Eta beste LOSA bat erastea erraza da.

Nafarroako UPNri buruz, ezer erantsi beharrik ez; hango Unibertsitate ofiziala, UPN da.

Irratiak, 'las de aquí', oso ondo ari dira egokitzen: azkeneko euritea dela-ta, honelaxe eman ziguten berria: «a causa de las lluvias persistentes, ha quedado cortada la carretera de Iesaba a Francia.»

Euskara bera ere, 'egokitzen' ari da tarrapataka. Lehen «istillua» esaten zen, orain «istiyua»; lehen «eutsi», orain «mantendu»; eta lehen «Gatzaga» esaten zen, orain «Gatxága».

Areago: 'Euskadiko Ezkerra', PSOEko 'sección norteña' bihurtu da; edo-ta, modari eutsiz, 'el partido socialista de aquí'. ¿Por qué? Porque en Murcia no había 'Euzcadico'. Puntu.

PNV, 'PP de aquí' bihurtzeko prest dago. Orain Azkoitiko magoaren agindua etorri zai. Oso ondo goaz!

Chapeau

HASIER ETXEBERRIA



BETE betean asmatu du beste behin ere Bernardo Atxagak. Uste du London aldean jaurti dituelako bere azken adierazpenak eta han esana omen da «Euskararen ezaguera pasiboa eska dakiok ezodein euskal hiritari».

Hitz horiek esatean, euskaldun askoren burubeltan aspaldidanik zebilen konklusioari garrantzia eman dio Bernardok. Norberak nahi bezala hitzegiz delaza baina guztiok izan gaitzela nor lagun hurkoa ulertzeko, bai euskaraz eta baita erdaraz ere. Euskararen ezaguera aktiboa eskatzea utopia bihurtzen den honetan, ez dator gaizki pasiboarekin konformatzea. Gainera, giza harremanetan izaten ditugun karko asko eta asko konponduko lirarteke baldintza hori beteko balitz. «Nik euskaraz, zuk zergatik ez?» haren lekuan, «nik euskaraz, zu nahi bezala» esatera dator Atxaga, eta ez dabil batera gaizki, izan ere geure euskalduntasuna aurrera eramanez ezina da egunoro izaten dugun korapiloa. 'Pasibotasun' horrek, ulermen maila eukitzeak, arazo asko eta asko arinduko liguke euskaraz bizi nahi dugun hainbat euskalduni.

Ez dakit, ordea, administrazioan ditugun gure ordezkariak Bernardoren hitzek duten garrantzia ikusi ote duten. Ez dakit konturatu ote diren, etika guztiek onartzeko moduko proposamena atera litekeela Ezaguera pasiboaren formulazio honetatik. Azken finean, Atxagak esan duena, positiboa da, ikastea beti bait da interesgarria. Alde berean euskaldunon hizkuntz eskubidearekiko gutxieneko errespetua beti arazi nahi du Atxagaren eskaerak.

Mari Karmen Garmendiak eta Joseba Arregik, beraien artean duten hasarre eta muturkeria alde batera laga eta kontzeptu edo, hoberre esanda, formulazio berri bati heldu eta aurrera egiteko aukera dute orain, lanerako gogoia baldin badute behintzat.

ABC

«Che» Guevara

(...) Komunismoa, berre-raikitze debekatua duen Cartago eskerra bat da. Ez da inolako Romarik izan, ordea, berarekin bukatu zuena. Ekonomi iruzurrak, krimenak eta opresioa, denak batera, izan ziren barmetik eta betirako suntsitu zutenak.

Egun, Guevara ez da berak izan nahi zuen aitzindaria, ez eta beste batzuek nahi zuten herioia ere. Abimael Guzmanen gisako beste zenbait epigono odoltzalek kutsu nobleismo gutzia kendu diote marxismoari, eta berak eraikitzen lagundu zuen Kubakoaren edo Ipar Koreakoaren moduko erregimenak zaharkin pa-

tetikoak dira gizakiak berezkoa duen ondasun baten gisa askatasuna errebindikatzea ezaugarritzen duen mundu batean. «Che» egun bizirik balego —esaten ausartzen gara—, Kubako kartzelaren batean ordainduko luke erregimenaren kontrako bere jarrrera; izan ere, jadanik 1967. urtean, eta itxurazko suizida baten zeharkaldia burutzeko, bertatik ihes egin zuen.

EDITORIALA

egin

Sakrifikatu direnen eredu

(...) Che Guevara hil zuten. Baina jarraitzen du.

Besteak beste Euskal Herrian jarraitzen du. Behin eta



Kanporea!..

ZULET / EL CORREO ESPAÑOL

berri, hizkuntza eta jantzi desberdinez moztururik, Euskal Herriaren arerioentzat lanean ari direnek irainduak, inkondizionalki sakrifikatu direnen eskukada desafioan ari baita. Diru erraza, fama, boterea eta ohorea enkantean saltzen direnean inkondizionalki sakrifikatu direnak utopiaren izenean usteltzera doaz. Baina, usteltzea bizitzarako bide dela badaki

bihiaren legeak ezagutzen dituenak.

Che Guevararen izaerarik aberatsena jaso dugu. Inkondizionalki sakrifikatzen den kolektibo bat gara. Altxor preziatuenaren jabe bezala erasopen bizitzera kondenatuak gaude. Baina, gure bihiak, erremiunduko delarik, landare eta fruituak ekarriko ditu. Bizitzaren legea da.

JOKIN APALATEGI

UZENDARIARI

Nora doa ETB1?

EITBri buruzko eztabaida zabaltzeko den udazken hasiera honetan nere gogoetxoak argitara nahi nituzke hemen zerbaitean lagun badezakete ere. Eta lehenik nere hariarria agertu nahi nuke ETB1ek 1992an egin duen programazio aldatze handiaren aurrean, ez dudalako ez alderdi politikoen, ez beste komunikabideen eta kultur elkarrean erantzunik ere somatu, salbuespen tiki batuzee kanpo. Alde honetatik begiratu diot hori: 1992an ETB1ek egin duen programazio aldatzea eta euskararen duen eragina. Azal ditzauden nere gogoetxoak.

Ez dut eskuetan EITBren sorrera legea, baina irakurria dut egunkari honetan A. Gostinek izenpeturik, honela dioela gutxi gorabehera lege horrek: «EITB euskal herritarren informazio eta partehartze politikorako tresnatzat hartu nahi dugu. Horretaz gain, oinarriko medioa da gure hezkuntza sistemaren eta euskal kulturaren hedapen eta sustapenerako, euskararen garapena kontuan harturik batez ere». Legeak dioenez aparte, uste dut euskaldun guztien kontzientzia dagoea, ETB1 behintzat, batez ere euskal kultura bul-tzatzeko eta euskara zabaltzako sortu zela eta horretarako behar lukeela.

Ez dut uste aurtengo programazio aldatzea

bide horretatik doanik; are gehiago desbideratzea edo atzera pausoa eman dela esango nuke nik. Nahiz eta denetik sartzen saiatzen den, batez ere udazkenarekin batera, eta kontuan izanik lehen katea dela, katea nazionala, euskaraz bakarria, esan dezagun osagarri guztietatik gehien nabarmentzen dena kirola dela. Programazioaren erdia inguru bete izan du eta betetzen du egun askotan, noiz edo noiz pasa ere bai, dokumentalek ere sarri kirolaz dihardutelarik. Filmak eta dokumentalak asko urritu dira aurten eta telesailak dagokienez gehienak errepikatzeak dira, oso denbora tarte txikiak errepikatuek gainera.

Izan dira arratsaldeak bi eta hiru futbol partidu eman direnak, futbol betekada sortuz zalenei ere, goragalea emateko moduan. Eta egunero boxeoaren denboraldi batean. Kirol eztabaidatuen artean beraxe izango dugu eztabaidatuna, eta badirudi ETBek dudu guztiak kentzeko edo egiten duela. Aurka zaudete, bai tori egunero.

Kirol zaparrada honen guztiaren aurrean esan beharra dago garbi kirolak eduki urriagoa duela hizkuntza baten garapenerako, askoz, aberatsagoak baitira filmak, telesailak eta dokumentalak, bai bertan eginak eta bai kanpokoak euskaraturik. Eta zer esanik ez kultur edukiaren aldetik. Beste kateetan, ETB2 barne, astean hamar film edo gehiago —egunean

bat edo bi— eskaintzen diren bitartean, ETB1ek bi edo hiru bakarriz eskaintzen ditu astean zehar galduek. Hilabetean 43 eta 44 ETB2k, eta ETB1ek 14, igandeko haurrentzako marrazki bidezko film laburra barne. Euskarra eta kultur eduki urritzeaz gain, zine zale euskalduna atzeraturik berriz ere, horretarako tresna egokia sortua izan arren.

Non da kultura ETB1ean? Nora ezkutatu zaigu? Benetan penagarria da eduki kulturalke saioen urritasuna. Nimiñoetan gabiltzala iruditzen zait. Non da Euskal Herriaren historia, literatura, musika, artea, kultura orohar? Badakigu ikusle-entzulegoa gehitzeagatik ahalagin guztiak egitea beharrezko eta egoki dela, baina ezin dugu atzundu xede nagusia: euskarra, kultura euskaraz eta euskal kultura. Aia honako hizketadun gizarteak sortu edo bulztatu nahi dugu: no estaba jokoz kanpo, ha hecho mai el alboko sake...?

Dirudienez, erantzen gutxiaren arabera, euskaldunok pozik gaude hor emanen zaigunarekin. Askok sentitzen dut hau esan beharra, baina datorridan bezala doa, aterik itxi gabe: lehenaz gainera ergel aurpegia areagotzen lagun dugula ETB1 iruditzen zait, lehenaz gainera ergel aurpegia zabaltzen joango zaigula, ezjakintsunarekin eta kultura ezarekin batera.

IÑAKI ZUBIZARRETA


GAIA JARRITA



Unibertsitateko ikasturte hasiera

Pausorik pauso larrera doaz artzai jakitun ta ardi belar igarra garestitzeko badute nonbait auzardi lehengo tasa osoa zana orain berriz taza t' erdi ez lanerako ez ikasteko egon beharko da geld.

JON IÑAKI IZARZELAIA



Batzorde Parekidea: 72504 E., Lege Gordailua: SS 800/90

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

Gereena: FERMIN LAZURMENDI

Zuzendaria: IÑAKI URIA

Zuzendariordea: LUZHEN ETXEZAHARRETA

Zuzendari Komertziala: JUAN INAZIO HARTSULAGA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitatea: KORNELIO ROTETA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Talerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02

Pabilioak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egoitza zoziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso

Jakintua, 16-1, / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1. Lezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) /

31011 Iruñea / ☎ 17 80 78 79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 503 Posta kutxaila, / 64105 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11